

Petrolioaren eta gasaren Gerra Luzeak harrapatu du Siria

Zientoka lagun hil zituen munizio kimikoak Damaskoko Ghoutan abuztuaren 21ean. Aurretik 100.000 hil ditu Bashar Al-Assad en aurkako matxinada hasi eta gerra zibil nahasi bilakatu denak. 4,5 milioi egin du ihes etxetik. Zergatik? Krisi ekonomikoa, idortea, demokrazia eskea, erlijiozko talka... baina baita energiaren geopolitikagatik ere.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

NAFEEZ AHMED-EK, WIKIPEDIAK zuzen dio, ingurumenaz, energiaren geopolitikaz eta krisi ekonomikoaz idazten du *The Guardian* egunkarian. Krisi ekonomiko, ekologiko eta energiazkoak ikertzen dituen Institute for Policy Research and Development elkartearen zuzendaria da. Bangladeshtar jatorria duen doktoreak unibertsitatean irakasten du. Bere liburuen artean sona lortu du *A User's Guide to the Crisis of Civilization* (Zibilizazio krisirako erabiltzailearen gida) izenekoak; horretan oinarriturik egindako dokumentala gaztelaniazko azpitituluz ikus daiteke Interneten: *La crisis de la civilización*.

Abuztuaren 30ean Ahmedek *The Guardian* en plazaratu du “*Syria intervention plan fueled by oil interests, not chemical weapon concern*” (Siria esku hartzea petrolioaren inguruko interesek sustatzen dute, ez arma kimikoengatik ardurak). Ez dakar gerraren esplikazio osoa, baina bai edozein esplikazio ondo kokatzeko eduki beharreko ikuspegia.

Inork ez beza espero Bashar Al-Assadekiko epelkeriarik: “Erregimen honen legimitimitaterik eza eta matxinatzearen legimitotasuna, oso nabarmenak dira”, dio Ahmedek hasieratik. Buakaeran: “Assad gerrako kriminala dela eta bere gobernu iraui egin beharra dagoela, horretaz

ez da zalantzarik. Kontua zera da: haren ordez nor jartzeko eta zein interesen alde”.

Sirian agintariak aldatzeko astindua askoz lehenago hasi ziren abuztu honen 21eko eraso kimikoa edo are herritarren 2011ko udako errebolta baino. Sei urtez atzera eginda, 2007rako George Bushen prentsan azaldua zuen Irango Gobernuaren uzkailtzeko operazioei baimena eman zela.


Urte hartan bertan Seymour Hershek *The New Yorker* aldizkarian erakutsi zuen ezkutuko operazioak Ekialde Hurbilean zeudela antolatuta, Iranen gain Sirian eta Libanon, esterako, operazioetan buru-belarri sartuta ari zela Saudi Arabia.

Berrikitan Roland Dumas Frantziako atzerri ministro izanak telebistan adierazi du Britainia Handiko agintariak 2009an aitortu ziotela Siria erasotzea prestatzen ari zirela.

Nafeez Ahmedek dioenez, 2011ko udan Sirian herritarrek kalea atera zirenerako energi urritasunagatik eta lehortek eragindako janariaren garestitzeagatik protestan, eta aldaketa politikoen eskean, ordurako urteak zeramatzen ingelesek Al-Assaden kontrako oposizioa taldeei entrenamendu militarra ematen.

Ahmedek gogorarazi du hitzaldi batean Wesley Clark jeneral ameri-

Jiji eta AFP agentziek zabaldu-tako argazkian, abuztuaren 26an Siriako Alepo hiri historikoan Bashar Al-Assaden armadaren bonbaketan zauritutako jendeak ari dira ateratzen hondakinen artean. Bost egun lehenago gertatu zen Damaskoko Ghoutan nazioarteko itunek debekatuta dauzkaten arma kimikozko erasoak. AEBetako presidente Barack Obamak iragarririk bonbaketa gogorrez zigortuko zuela Al-Assaden armada, azken orduan Errusiatik Vladimir Putinek lortu zuen irailaren 9an, amerikarren eta Mendebaldeko aliatuen erasoak gelditzea, Damaskori onartaraziz arma kimikoen entregatzea.



karrak, OTANeko idazkari nagusi izanak, esan eta oraindik Interneten entzun-ikus daitekeen harribitxia: 2001eko irailaren 11ko atentatuak gertatu eta gutxira AEBetako defentsa ministerioan proposatu zela “bost urtetan eraso eta suntsitzea gobernuak zazpi herrialdetan, Iraken hasita, Sirian, Libanon, Libian, Somalian, Sudanen eta Iranen”. Clark berak garbi dio estrategiaren gakoa zertan datzan: gas eta petroliotik hain aberatsa den Ekialde Hurbila kontrolatzea da aferra.

Petrolio gutxi, baina kokapen ona

AEBen estrategia zein den ezagutzeko Nafeez Ahmedek proposatzen digu irakurtzea RAND segurtasun konpainiak Armadarentzako 2008an idatzitako “*Unfolding the Future of the Long War*” (Gerra luzearen etorkizuna azaleratuz). Dohain eskuratzeko, Interneten titulua galdetzea aski.

Long War, gerra luzea dago martxan. Zergatik? “Herrialde industrializatuak ekonomiek jarraituko dute oinarritzen hein handian petrolioan, baliabide estrategiko inportantea da hau”, dio RANDek. “Ezagutzen diren petrolio erreserbak salafista-jihadisten sareak indarra daukan lurraldeetan daude. (...) Etorkizunean Persiar Golkoko iturriak izango dira nagusi munduko



petrolio produkzioan. Horregatik eskualde honek lehentasun estrategikoa edukiko du eta lehentasun hau eten gabe nahastuko da gerra luzea jarraitu beharrarekin”.

RANDen agiriak 96. orrialdetik aurrera deskribatzen ditu zazpi estrategia *Long War* horretan garai-pena lortzeko. Bat da Erromak aspaldi erakutsitako *Divide and Rule*, zatitu itzazu eta nagusituko zara. Ekialde Hurbilaren kasuan, matxi-no salafista-jihadisten arteko ezberdintasunak areagotu, beren arteko borroketan akitu daitezten.

Ezkatuko operazioak, gerra ez konbentzionala, lekuko segurtasun indarrak babestea... baina konplexurik gabe: “AEBetako buruzagiek –proposatzen dio RANdek Arma-

dari– aukeran daukate xiiten eta suniten arteko gatazka jarraituari etekina ateratzea, musulmanen artean errejimen kontserbadore suniten alde jokatzuz eta mugimendu xiita askatzaileen kontra [*Shiite empowerment movements*]... behar iza-nez gero sostengatuz beti Iranen etsai azaltzen diren gobernu sunita autoritarioak”. Informeak aipatzen zuen Saudi Arabia, Egipto eta Pakistango erregimenei laguntzea... ikusi zer gertatu den Egipton.

Bestalde, xiiten eta suniten arteko gatazka AEBentzako bada *dibertsio maniobra* ere. RANDeko adi-tuentzako Al Kaeda oso kezkatuta dagoenez xiiten indarrarekin, hauen aurka erre dezakete bestela Mendebaldearen kontra erabiliko

zuten munizioa; hots, kezkatu daitezela pittin bat gehiago Iran ez eta gutxiago gutaz.

2008rako RANdek iragarri zuen Siriak gero eta ur eskasia handiagoa-ri egin beharko ziola aurre, ur faltak eragindako gatazkak aurreikusiz. Ez zen orduan usaintzen *udaberri arabia-rrik* baina Mendebaldearen petrolio hornidurarentzako arriskuei dago-kienez Nafeez Ahmedek nabar-mendu du nola laster azaldu zen RANDeko aditu *neoonak* ez zeudela guztiz oker.

2009an Siriak ez zuen onartu Katarrekin sinatzea erresuma hone-tako petrolio, Saudi Arabia, Jorda-nia eta Sirian barrena Turkiatik Europara heltzeko hodiaren kontratua. Oso bestela, 2012an sinatu zuen memorandum bat Iran eta Ira-kekin hauetako gasa Siriako portue-taraino ekartzeko, Mediterraneora iritsi zedin.

“Iran-Irak-Siria hodia –idatzi du Safeez Ahmedek– Katarren planei ‘masaileko handia’ ematea zen. Ez da harritzekoa Bandar bin Sultan prin-tze saudiarrak, Errusia sozioz kan-biatu zedin ahaleginean, Vladimir Putin presidenteari esatea Al-Assa-den ondorengo edozein erregimen erabat egongo dela Saudi Arabiaren eskuetan, eta ez duela Sirian barrena gasa Europara eramanez Errusiare-kin konpetentzia eginen. Putinek ezetz erantzun zion eta Bandar prin-tzeak eraso militarari ekin”.

Ekialde osoko Gerra Luzearen atal bat gehiago da Siriako gerra. Euskal-dunak gogoratu behar-ko luke autoari gasolina jartzerakoan. ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Garantia.

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu,
produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com · www.zinkunegioptika.com

